

Haur motorizatuak



Bostekoa

Alex Silva

Ez da astebete izango inguruko herri batera zenbait enkargu egitera joan nintzela. Arratsaldea hasi berria zen. Kalean gora nijoala auto zarata ugari entzuten hasi nintzen.

Soinuak, motor hotsak, garraxiak... zer ote zen hura, munduaren amaiera-edo.

Gehiago gerturatu nintzen orduan. Eta hantxe ikusi nuen kotxe mordoxka bat. Nonahi zeuden autoak: espaloien gainean, zebrabideak oztopatuz, errepede bera okupatzen, etxeetako sarreren aurrean...

Kolore guztietako kotxeak ikusi nituen: marroiak, gorriak, beltzak, urdinak, zuriak, berdeak... Baita marka eta modelo guztietakoak, Fordak, mendikoak, eleganteak, Audiak...

Ez zegoen erraz taldekatzerik. Zer gertatuko ote zen bertan gal-



Jende askok autoa erabiltzen du herrian zehar mugitzeko. HITZA

detzen nion nire buruari. Eta orduantxe, txirrin bi, eskola-txirrinak ziren. Arratsaldeko bostetako eta egun amaierako hotsa zen hura.

Bat-batean, haur pila hasi ziren kotxeetara gerturatzen, batzuk gurasoekin, beste batzuk bakarrik, eskuak liburuz beteta zituzten askok, adin askotako haurrak ziren...

Pixkanaka eta lasai, gurasoek autoak hartu eta zona hura lagatzen zuten. Askok, ez urrutit joate-

ko, bi kale behe-rago joateko baidetik.

Nik ezin nuen sinetsi han gertatzen ari zena. Kalea ia moztuta, kotxez gainezka, haurrak eskolatik jasotzeko...

Baina nire harridura ez zen hor amaitu. Egoera normaltasunera iritsi zenean, han ikusi nituen, urrunean, bakeroen filmetan gaiztoak urrunean eta behe-laino artean ikusten diren moduan bi udaltzain. Uniforme urdinarekin, bizkarrean polizia jartzen zuela.

Errepede erditik zetozen, motel, lasai... Ezer gertatu ez balitz moduan. Nola daiteke? Galdetzen nion nire buruari. Orain bost minutu kalea autoz gainezka egon, errepede-segurtasuneko arau guztiak apurtu, eta isun bat bera ere ez jarri, presentzia areagotu ere ez.

Beldurrez begiratzen nion nire inguruari. Jokaera zein zen ikusita, nork zekien zer gerta zitekeen.

Tira, egin beharreko enkargue-

tara bidean jarraitu nuen. Lehen dendarara iritsi ahala, nire harridura azaldu nion bertan zegoenari; gertatutakoa kontatu nion, baina dendariarentzako ez zen ezer berria. Egunero gertatzen zela zioen.

Berak ere ez zuen ulertzen, inguruko jendea nola joaten zen kotxean haurrak jasotzera. Zer-nolako hezkuntza ematen ari ginen, zein eredu.

Hau da, haurren bila kotxean joatea ez zen batere zuzena, ez baita ingurumenarentzako lagungarri, gainera bizitza sedentarioaren alde egiten genuen haurren aurrera, baina larriena, bizikidetzara arauak urratzen genituen. Horren aurrean, ez eskolako ardura-dunek, ez udal ordezkariak, ez udaltzainak, ez zuten ezer egiten.

Hori bai, dendariak zioenez, asteburu normal batean, gertu dagoen jatetxera edo beste komertzio batera joateko bi minutuz espaloien gainean autoa lagaz gero, ziur isuna jartzen zizutela. Ezin nuen sinetsi.

Pentsatzen dut hau ez dela berria, herri askotan gertatzen dela, baina ni ez nago ohituta. Eskolara joaten nintzenean, oinez joaten nintzen, eta gurasoak ere oinez joaten ziren bila.

Dendariak esan zidan moduan, gaur eguneko haurrak, haur motorizatuak dira.